

<b>PRESTAKUNTZA EKINTZAREN IZENDAPENA</b>	<b>KODEA</b>
<b>ENERGIA BERRIZTAGARRIAK</b>	<b>UI19_07</b>

<b>IRAUPENA</b>	30	<b>IRAKAS LEKUA</b>	CIFP USURBIL LHII Etarte bidea 9, 20170 Usurbil, Gipuzkoa
<b>HASIERA DATA</b>	2019-6-24	<b>AMAIERA DATA</b>	2019-06-28
<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>MINIMO</b>	10	<b>HIZKUNTZA</b> Gaztelania
	<b>MAXIMO</b>	15	

FASEA/K	ORDUAK	DATA	ORDUTEGIA	MOTA
1	6	2019-6-24	8:30-14:30	presentziala
2	6	2019-6-25	8:30-14:30	presentziala
3	6	2019-6-26	8:30-14:30	presentziala
4	6	2019-6-27	8:30-14:30	presentziala
5	6	2019-6-28	8:30-14:30	presentziala

## EGITARUA

### GAITASUNAK

Lanbide Heziketako udako ikastaro honek Energia Berriztagarri eta Energia Efizientziako aukera eskaintzen du energia iturri garbiei buruzko ikuspegi paregabea eskuratzeko, baita ondorengoei buruz: askotariko banaketa eta biltegitratze teknologiak eta sistema efizienteen bidez atzemandako energia kudeaketa.

Programa bost egunez luzatuko da eta egun bakoitzean, energia/efizientzia arlo bana landuko da, eta askotariko helburuen berri emateko alderdiak landu eta aztertuko dira, adibidez, instalazioa eta mantentze lana, baliabideen kudeaketa, edota praktika didaktikoen adibideak.

### EDUKIAK

- Eguzki Sistema Fotovoltaikoen diseinu, instalazio eta mantentze lanerako printzipioak. Eguzki energiari buruzko oinarriko teoria, sistema osagaiak, diseinua, instalazioa, martxan jartzea, mantentze lana eta arazoaren konponketa eskala txikiko instalazio fotovoltaiko batean.
- Eguzki Energia Termikoaren kontzeptu nagusien azterketa. Instalazioen diseinua eta neurria hartzea, muntaketa baldintzen azterketa, zerbitzu abiaraztea eta instalazioen mantentze lana.
- Haize Energiari buruzko kontzeptu orokorren berrikuspena. Aire-sorgailu motak eta ezaugarriak, mantentze lanerako zereginak eta prebentzioko mantentze lana.
- Askotariko teknologiak uztartzen dituen galdara gela eredua. Biomasa galdarak. Osagaiak, errektuntza gasak, errendimendua, mantentze lanak.
- Biomasa galdareei buruzko ikastaro eta jardunaldietarako ekipamendu eramangarria.
- Energia Berriztagarri eta Energia Efizientziari buruzko ikastaroetarako Internet edukien aplikazioa.

## PROGRAMA

1. eguna:
  - Harrera.
  - Ikastaroaren aurkezpena eta dokumentazioa ematea.
  - CIFP Usurbilgo Lanbide Eskola LHII instalazioen bisita
  - Eguzki Energiaren oinarri teknikoak.
2. eguna: Eguzki Energia Fotovoltaikoa.
3. eguna: Eguzki Energia Termikoa.
4. eguna: Haize Energia.
5. eguna: Galdara gelak eta Biomasa.

## EVALUAZIOA

Ikaslea ebaluatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Parte hartzaileak orduen % 90arekin bete behar du, gutxienez.
- Parte hartzaileak prestakuntza jarduerako dinamika, ariketa eta praktika guztiak egin behar ditu.

## BALDINTZAK

Ikastaro hau Energia berriztagarrien eta Efizentzia energetikoaren inguruan ezagutza zabaldu nahi duen edozein Elektrizitate eta Elektronika eta Energia eta Ura familietako irakasleari zuzendua dago .

## HAUTAZE IRIZPIDEAK

Izen-emateak, eskainitako plaza kopurua gainditzen badu, ikasle hautaketa honako irizpideak aintzakotzat hartuta egingo da:

- Izen-emate ordena kontutan hartuko da.
- Plaza kopurua honako hauen artean banatuko da:
  - Beste erkidegoetako irakasleak
  - EAEko irakaslegoa

## IZEN-EMATE DATAK

- **Plaza kopurua:** 15 (gutxienez 10 pertsona / gehienez 15 pertsona)
- **Aurreizen-emateko azken eguna:** 2019ko ekainaren 07a
- **Ebazpena:** 2019ko ekainaren 10. Izena eman duten guztiei adieraziko zaie, posta elektronikoaren bitartez, ikastaroan onartuak edo itxaron zerrendan geratu diren.
- **Matrikula osatzeko azken eguna:** 2019ko ekainaren 16a
- **Formakuntza ordaintzeko azken eguna:**
  - **EAEko irakasleak: formakuntza DOAKOA da.**
  - **BESTE ERKIDEGOETAKO irakasleak:** 2019ko ekainaren 16a
    - **Formakuntzaren kostua:** 450€ pertsonako